



## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Eta nor da nire lagun hurkoa?”

2022ko uztailaren 10a  
Urteko 15. igandea (C)

### Lukas 10, 1-12. 17-20.

Orduan, legemaisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion: Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko? Jesusek esan zion: Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu? Hark erantzun: *Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotzbihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz. Eta lagun hurkoa zeure burua bezala.* Jesusek erantzun zion: Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu. Baina legemaisuak, bere galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, galdetu zion Jesusi: Eta nor da nire lagun hurkoa? Jesusek erantzun zion: Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemdik behera Jerikorantz eta lapurren eskuetan erori zen; zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Apaiz bat gertatu zen, hain zuzen, bide hartan behera, eta, gizona ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Gauza bera egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean ezarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: “Zain ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut”. Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren esku eroritako gizonarekin? Legemaisuak erantzun zion: Hartaz errukitu zenak. Jesusek esan zion, orduan: *Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste.*

“Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko?”

## EZ EGIN EZIKUSIARENIK

*Jose Antonio Pagola*

«Eta izan errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala». Hau da Jesusek gizadiari utzi dion ondarea. Historian txertatu nahi izan duen iraultza ulertzeko, arretaz irakurri beharra dugu «samariar onaren» kontakizuna. Hartan deskribatu digu sustatu behar dugun jarrera, gure ustekeriak eta jarrera ideologiko edo erlijiosoak baino harago, mundu gizakoiago bat eraikitzeko.

Bide bakarti baten ertzean gizaki batek datza, ostu egin diote, eraso, dena kendu, erdi hilik utzi, bere zorira utzi. Izenik eta aberririk gabeko zauritu honengan laburbildu du Jesusek hainbat eta hainbat biktima errugaberen egoera, zuzengabeki tratatuak eta historiako hainbat bide-ertzetan utziak izan direnen egoera.

Ingurumari horretan, bi bidaiari ageri dira: lehena apaiz bat, bestea lebitar bat. Biak dira Jerusalemeko erlijio ofizialean errespetuz hartutako mundukoak. Biek modu berean jokatu dute: «*zauritua ikusi, bidetik saihestu eta ezikusiarrena egin*». Biek itxi dituzte begiak eta bihotza, gizon hura ez da inor haientzat, aurrera egin dute gelditu gabe. Hau da Jesusek egiten dion errotiko kritika bere kideengan bihotz errukitsu bat sortzeko gai ez den erlijio orori. Zer zentzu du halako gizatasun eskasa duen erlijio batek?

Bide beretik badator hirugarren pertsonaia bat ere. Ez da apaiza, ezta lebitarra ere. Ezta Tenpluko erlijio kide ere. Halaz guztiz, iristean, «*zauritua ikusi du, hunkitu da eta hurbildu zaio*». Berehala, ezezagun harentzat ahal duen guztia egin du, bizirik ateratzeko eta haren duintasuna berreskuratzeko. Hau da Jesusek munduan txertatu nahi duen dinamika.

Lehenik eta behin, ezikusiarrenik ez egin. Sufritzen ari denari arretaz eta erantzukizunez begiratu. Begiratu honek aska gaitzake egoismatik eta axolagabekeriatik, hainbat eta hainbat biktima errugaberen artean bizi izanik kontzientzia lasaiaz eta errugabetasun-ilusioaz bizitzen uzten diguten jarrera horietatik. Aldi berean, begiratu horrek eragin diezaguke «*hunkitzera; baita halakoan sufrimendua geure sufrimendu egitera ere*».

Erreakzionatzea da funtsezko gauza, eta sufritzen ari den harengana «*hurbiltzea; ez, noski, halakoari laguntzera beharturik ote nagoen ala ez galdetzeko, baizik eta, ondo-ondo jarririk, premian dagoen hura pertsona dela jabetzeko, deika ari zaiguna dela. Geure jarduera zehatzak agertuko digu geure gizatasun-kalitatea.*

Hau guztia ez da teoria hutsa. Gaurko kontakizuneko samariarra ez da pentsatzen jarri kode erlijioso edo moral bat bete beharra duen ala ez. Soil-soilik, zaurituaren egoerari erantzun dio, burura etorritako guztia egin du, haren sufrimena arindu eta haren bizitza eta duintasuna beren onera ekartzeko. Konklusio-moduan, hitz hauek esan dizkio Jesusek: «*Zoaz eta egin zeuk ere gauza bera*».